| | |
|---|---|
| **IBILGAILUAK SARTU ETA ATERATZEKO (IBIak) BAIMENAK LORTZEKO ORDENANTZA ARAUGILEA** | **ORDENANZA REGULADORA DE VADOS Y PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN DE LICENCIA** |
| | |
| Ordenantza hau Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-Segurtasunari buruzko Testu Bateratua onartu duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 7 eta 39.4 artikuluek, eta 1986ko ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamenduaren 77. artikuluan onartutako eskumenetan oinarrituta eman da. | La presente Ordenanza se dicta en virtud de las facultades concedidas por los artículos 7 y 39.4 del Real Decreto Legislativo 6/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, en relación a lo preceptuado en el artículo 77 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio. |
| | |
| 1. artikulua.- Helburua. | Artículo 1.- Objeto. |
| 1.- Ordenantzaren helburua pasabide-lizentzia emateko baldintzak eta prozedurak ezartzea da. | 1.- El objeto de esta Ordenanza es establecer los requisitos y el procedimiento para el otorgamiento de la licencia de vado. |
| 2.- Jabetza-eskubiderik eman gabe eta hirugarrenei kalterik gabe ematen da pasabide-lizentzia. | 2.- La licencia de vado se otorga a salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio de tercero. |
| 3.- Espaloia ibilgailuak igarotzeko erabiltzea (sarri edota gutxitan) edozein unetan baliogabetu daitekeen tolerantziako jarrera besterik ez da. | 3.- La mera utilización de la acera para el paso de vehículos, más o menos habitual, solo puede entenderse como una tolerancia esencialmente revocable en cualquier momento. |
| | |
| 2. artikulua.- Pasabide-eskubidea. | Artículo 2.- Derecho de vado. |
| 1.- Pasabide-eskubidea espaloien (herri ondasunak dira, eta erabilera publikokoak), aprobetxamendu komun berezia egitea da. | 1.- El derecho de vado constituye un aprovechamiento común especial de las aceras, bienes de dominio público y de uso público. |
| 2.- Espaloia sarri erabiltzea dakar, ibilgailuak sartu eta ateratzeko; gainera, zintarria eta espaloia bera aldatu edo beheratzea ekar dezake, aurrez aurre dauden lokal edo finketara errazago pasa ahal izateko. | 2.- Comporta el uso intensivo de la acera para entrada y salida de vehículos, pudiendo implicar modificación o rebaje de bordillo y acera para facilitar el libre tránsito a locales o fincas situadas frente al mismo. |
| 3.- Galarazita dago sartzeko arrapalak, behin-behineko edo unean uneko elementu mugigarriak –egurrezkoak edo | 3.- Queda prohibido cualquier forma de acceso diferente mediante rampas, instalación provisional o circunstancial de |

| | |
|---|---|
| metalezkoak-, adeiluak, hondarra edo beste elementu batzuk ipintzea, aurretiaz horretarako baimen berezia eskuratu ez bada. | elementos móviles, con cuerpos de madera o metálicos, colocación de ladrillos, arena u otros elementos, excepto si previamente se haya obtenido una autorización especial. |
| | |
| 3. artikulua.- Iraupena. | Artículo 3.- Duración. |
| Pasabide-eskubidea mugarik gabe edo zehaztutako epe baterako eman daiteke. Bata zein bestea iraunkorrak edo ordutegi zehatzekoak izan daitezke. | El derecho de vado puede concederse con carácter indefinido o por tiempo determinado. Uno y otro pueden ser permanentes o de horario determinado. |
| | |
| 4. artikulua.- Lizentzien titularrak. | Artículo 4.- Titulares de licencias. |
| Pasabide-lizentzien titularra izateko, honakoen jabe edo errentari izan behar da: | Solo podrán ser titulares de licencia de vados los propietarios o arrendatarios de: |
| - Industria-establezimendua. | - Establecimientos industriales. |
| - Ibilgailuak gordetzeko lokala. | - Locales destinados a la guarda de vehículos. |
| - Familia bakarreko etxebizitzak dituzten finkak. | - Fincas con viviendas unifamiliares. |
| | |
| 5. artikulua.- Pasabide-lizentzia eskatzea. | Artículo 5.- Solicitud de licencia de vado. |
| 1.- Pasabide-lizentzia eskuratu nahi dutenek alkateari zuzendutako eskabidea aurkeztu beharko dute. Eskabidean, beti ere, datu hauek agertu behar dute: | 1.- Los interesados en una licencia de vado presentarán solicitud dirigida al Alcalde, la cual habrá de contener, en todo caso, los siguientes datos: |
| a) Interesdunaren edo hura ordezkatzen duen pertsonaren izen-abizenak, bai eta jakinarazpenak jasotzeko helbide bat ere. | a) Nombre y apellidos del interesado o de la persona que lo represente, así como la identificación del lugar que señale a efectos de notificaciones. |
| b) Pasabide-lizentzia zein eraikinetarako eskatzen den (argi eta garbi adierazi behar da). | b) Identificación del edificio respecto del cual se solicita la licencia de vado, que habrá de concretarse con toda claridad. |
| c) Eraikinaren fatxadaren argazkia, lokalaren, establezimenduaren edo finkaren sarrera identifikatzen duena. | c) Fotografía de la fachada del edificio identificando el acceso del local, establecimiento o finca. |
| d) Eskatzaileak lokala beste helburu edo jarduera batzuetarako ez duela erabiliko ziurtatzen duen aitorpena. | d) Declaración por la cual el peticionario se obliga a no utilizar el local para otros fines o actividades. |
| e) Eskatzailearen edo haren ordezkariaren sinadura, tokia eta | e) Lugar, fecha y firma del solicitante o de su representante. |

| | |
|---|---|
| data. | |
| | |
| 2.- Industria eta merkataritza establezimenduen titular diren interesdunek, eskabidearekin batera, zenbait dokumentu aurkeztu behar dituzte, ondoko egoerak egiaztatzeko: | 2.- Los interesados, titulares de establecimientos industriales o comerciales, habrán de acompañar a la instancia los documentos acreditativos de las siguientes circunstancias: |
| a) Udalak emandako jarduera-lizentzia, dagokion jarduerarena. | a) Estar en posesión de la correspondiente licencia municipal de la actividad. |
| b) Egingo den jarduerak ibilgailuen sartu-irtena eskatzen duela. | b) Que la actividad que se realiza requiere la entrada y salida de vehículos. |
| c) Establezimenduak toki librea, egokia, iraunkorra eta beste erabilera baterako ez dena duela, eta, bertan, hiru eta bost auto sartzen direla. | c) Que el establecimiento dispone de espacio libre y adecuado con carácter permanente y sin otro destino, con capacidad para tres o más vehículos automóviles. |
| | |
| 3.- Ibilgailuak gordetzeko lokalen titular diren interesdunek eskabidearekin batera, zenbait dokumentu aurkeztu behar dituzte, ondoko egoerak egiaztatzeko: | 3.- Los interesados, titulares de locales destinados a la guarda de vehículos habrán de acompañar a la instancia los documentos acreditativos de las siguientes circunstancias: |
| a) Lokalak 100 m² baino gehiago baditu, udalaren jaduera-lizentzia behar dute. | a) Si el local excede de 100 m², estar en posesión de la correspondiente licencia municipal de actividad. |
| b) Lokalak 100 m² baino gutxiago baditu, hiru eta bost ibilgailu artean sartzeko lekua baduela egiaztatu behar dute, familia bakarreko etxebizitza bati atxikitako lokala ez bada; kasu horretan, nahikoa izango da ibilgailu bat edo gehiago hartzeko lekua izatea. | b) Si no excede de 100 m², que puede albergar de tres a cinco vehículos automóviles, excepto en el caso de que se trate de un local asociado a una vivienda unifamiliar, en que será suficiente que pueda albergar uno o más vehículos automóviles. |
| | |
| 4.- Familia bakarreko etxebizitzak dituzten finken titular diren interesdunek, eskabidearekin batera, zenbait dokumentu aurkeztu behar dituzte honako egoerak egiaztatzeko: | 4.- Los interesados, titulares de fincas con vivienda unifamiliar, habrán de acompañar a la instancia los documentos acreditativos de las siguientes circunstancias: |
| a) Lokalean, gutxienez, ibilgailu bat sartzen dela. | a) Que la finca pueda albergar, al menos, un vehículo automóvil. |
| b) Lokala etxebizitza bateko | b) Que el local se destinará |

| | |
|---|---|
| ibilgailuak gordetzeko bakarrik erabiliko dela. | exclusivamente a la guarda de vehículos asociados a una vivienda. |
| | |
| 5.- 5 ibilgailu baino gehiagorentzako tokia duten lokalek dagokion Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsu diren jardueren proiektu teknikoa aurkeztu beharko dute. | 5.- Los locales con capacidad para más de 5 vehículos presentarán el correspondiente proyecto técnico para tramitar la actividad Molesta, Insalubre, Nociva y Peligrosa. |
| | |
| 6. artikulua.- Pasabideen ezaugarriak. | Artículo 6.- Características de los vados. |
| Ibilgailuak finken barrura sartzea modalitate bakar batean sailkatzen da, eta hiru tarifa desberdin sortuko dira. Tarifa horiek kasuan kasuko ordenantza fiskaletan arautuko dira. | La entrada de vehículos al interior de las fincas se clasifican en una sola modalidad, que dará lugar a tres tarifas distintas que se regularán en las correspondientes Ordenanzas Fiscales. |
| | |
| Modalitate bakarra: Ibilgailuak espaloi publikotik sartzen direnean edo galtzadako espazioa modu iraunkorrean gordetzea. Mota hauek bereizten dira: | Modalidad Única.- Entradas de vehículos a través de la acera pública o calzada con reserva de espacio. Esta modalidad a su vez se divide en: |
| | |
| a.- Ibilgailuak fabrikatzeko edo konpontzeko tailerretarako lokaletarako sarrera. | a.- Entrada a locales destinados a talleres de fabricación o reparación de vehículos. |
| b.- JEZ zergak ordaintzen dituzten lokaletarako sarrera. | b.- Entrada a locales que tributen por el IAE. |
| c.- Aurreko ataletan aipatzen ez diren lokaletara sartzea. Era berean, honela banatzen dira: | c.- Entrada a locales que no tengan la consideración de los apartados anteriores. A su vez, se dividen en: |
| - 3 plaza baino gutxiagokoak. | - Con menos de 3 plazas. |
| - 3 eta 10 plaza artekoak. | - Entre 3 y 10 plazas. |
| - 11 eta 30 plaza artekoak. | - Entre 11 y 30 plazas. |
| - 31 eta 50 plaza artekoak. | - Entre 31 y 50 plazas. |
| - 51 plaza baino gehiagokoak. | - Más de 51 plazas. |
| | |
| Sartzen den lokalaren arabera dagokion tarifa egokituko zaio, eta urtero likidatuko da. | En función del local a la que se accede mediante le corresponderá su tarifa, que será liquidada anualmente. |
| | |
| Tarifa horiek urtero eguneratuko dira, ordenantza fiskalak aldatuz. | Las tarifas en cuestión serán actualizadas anualmente mediante la modificación de las Ordenanzas Fiscales. |
| | |

| | |
|---|---|
| 3.- Pasabide-plaka udalak emandakoa edo baimendutakoa izango da. Emakida hori tasari lotuta egongo da, eta urtero likidatuko da. Urtebetetik beherako aldiak hilabeteka hainbanatuko dira, eta gutxieneko likidazio-aldia hilabetekoa izango da. Tasa hori urtero eguneratuko da, ordenantza fiskalak aldatuz. | 3.- La placa de vado será la que suministre o autorice el Ayuntamiento. Dicha concesión estará sujeta a tasa, que será liquidada anualmente. Los periodos de tiempo inferiores a un año serán prorrateados por meses, siendo el periodo mínimo de liquidación el de un mes. La tasa en cuestión será actualizada anualmente mediante la modificación de las Ordenanzas Fiscales. |
| | |
| 7. artikulua.- Debekuak. | Artículo 7.- Prohibiciones. |
| Debekatua dago pasabideetarako gordetako lekuetan gelditzea edo aparkatzea, bai eta beharreko lizentziarik gabe bideetan obrak egin edo seinaleak ipintzea ere. | Queda prohibido la parada y estacionamiento en los lugares reservados para vados, y realizar obras o señalizaciones en las vías urbanas, respecto de los mismos sin la preceptiva licencia. |
| | |
| 8. artikulua.- Lizentzia emateko organo eskuduna. | Artículo 8.- Órgano competente para el otorgamiento de la licencia. |
| Alkateari dagokio lizentzia emateko eskumena. | La competencia para otorgar la licencia corresponde al Alcalde. |
| | |
| 9. artikulua.- Prozedura. | Artículo 9.- Procedimiento. |
| 1.- Pertsona interesdunak prozedura hasi dadin eskatuta, ofizioz bultzatuko dira izapide guztiak, eta izapidegileak Udaleko Zerbitzu Teknikoen txostena, Fondoen kontu-hartzailearenak eta beharrezkoak iruditzen zaizkionak bilduko ditu, horiek eskuratzea egokia dela arrazoituta, betiere. | 1.- Iniciado el procedimiento a solicitud de persona interesada, se impulsará de oficio en todos sus trámites recabando el instructor simultáneamente informes de los Servicios Técnicos del Ayuntamiento, de la intervención de fondos y los que juzgue necesarios para resolver, fundamentando la conveniencia de recabarlos. |
| 2.- Zerbitzu Teknikoen txostenak gai hauek landuko ditu, besteak beste: pasabidea udalerrian indarrean dauden plangintza-arauekin bat datorren, aurkeztutako dokumentuek ordenantza honetan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten, eta hiri-elementuren batek kalteak izan baditzake, nola konponduko den. | 2.- El informe de los Servicios Técnicos versará en orden, entre otros posibles aspectos, a si el vado es compatible con las normas de planeamiento que rijan en el municipio; si en la documentación presentada se cumplen las exigencias técnicas fijadas en esta Ordenanza y si hay elementos urbanos que pueden quedar afectados, la forma de su reposición. |
| 3.- Fondoen kontu-hartzailearen txostena eduki ekonomikoko betebeharrez arituko | 3.- El informe de Intervención de Fondos se referirá a las obligaciones de contenido |

| | |
|---|---|
| da. | económico. |
| 4.- Txostenak gehienez 10 eguneko epean bideratuko dira. | 4.- Los informes serán evacuados en el plazo máximo de 10 días. |
| | |
| 10. artikulua.- Erabakitzeko obligazioa. | Artículo 10.- Obligación de resolver. |
| 1.- Alkateak gehienez bi hilabeteko epean eman behar du horri buruzko erabakia, eskaera udal erregistroan sartzen denetik kontatzen hasita. | 1.- El Alcalde está obligado a dictar resolución expresa en el plazo máximo de dos meses desde que la solicitud tuviese entrada en el registro del Ayuntamiento. |
| 2.- Onartutako txostenak eta irizpenak erabakiaren oinarri izango dira, erabakitako testuarekin batera ipintzen badira. | 2.- La aceptación de los informes y dictámenes servirá de motivación a la resolución cuando se incorporen o adjunten al texto de la misma. |
| | |
| 11. artikulua.- Presuntziozko egintza. | Artículo 11.- Acto presunto. |
| Erabakia hartzeko epea amaitu eta alkateak erabakirik eman ez badu, eskaera ez onartutzat joko da. | Si venciere el plazo de la resolución y el Alcalde no la hubiere dictado, se considerará desestimada la solicitud. |
| | |
| 12. artikulua.- Pasabidearen titularraren eta Udalaren betebeharrak. | Artículo 12.- Obligaciones del titular del vado y del Ayuntamiento. |
| Pasabidearen titularrak nahitaez egin beharko du: | El titular del vado está inexcusablemente obligado a: |
| a) Zoladura eta seinaleztapen diskoa egoera onean mantentzea. | a) Conservar en buen estado el pavimento y disco señalizado. |
| b) Zoladura eta pintura berritzea, udalak horrela agintzen dionean. | b) Renovar el pavimento o pintura, cuando lo ordene el Ayuntamiento. |
| c) Pasabidean Udalak agindutako ohiko eta ez-ohiko lanak egitea. | c) Efectuar en el vado cuantas obras ordinarias o extraordinarias ordene el Ayuntamiento. |
| d) Espaloia edo zintarria bere haserako egoerara berregin, behin emandako pasabide baimena bertan behera geratzen denean. | d) Rehacer la acera o bordillo a su estado primitivo una vez se haya anulado la licencia de vado concedida. |
| | |
| Udalaren betebeharra izango da, ibiaren lizentzia ematerakoan, zintarria edo lizentzia eman izanaren gainerako seinaleztapenak pintatzea. | El Ayuntamiento tiene la obligación de, en el momento de otorgar la licencia de vado, a pintar el bordillo y demás señales o indicativos de licencia. |
| | |
| 13. artikulua.- Pasabide baimena bertan behera geratzeko kausak. | Artículo 13.- Causas de anulación de la licencia de vado. |
| Pasabide baimenak automatikoki bertan behera geratuko dira Ordenantza honetan ezarritako edozein betebehar betetzen ez | Las licencias de vado quedarán automáticamente anuladas por incumplimiento de cualquiera de las |

| | |
|---|---|
| bada. Espreski honakoak aipatzen dira: | obligaciones impuestas en esta Ordenanza. Expresamente se señalan las siguientes: |
| a) Zoladura eta seinaleztapen diskoa egoera onean ez mantentzea. | a) No conservar en perfecto estado el pavimento o pintura. |
| b) Baimena ez erabiltzea edo erabilpen okerra egitea. | b) No uso o uso indebido del mismo. |
| c) Lokalak eskatutako edukiera ez edukitzea. | c) No tener el local la capacidad exigida. |
| d) Adierazitako helburuetarako ez erabiltzea lokala | d) Destinar el local a fines distintos a los declarados. |
| e) Emakida eman izanaren arrazoiak aldatu izana. | f) Modificación de las circunstancias que originaron la concesión. |
| | |
| 14. artikulua.- Espaloi-beheratzeak | Artículo 14.- Rebajes de acera. |
| Espaloiko beheratzeak, behar izanez gero, titularrak (interesdunak) izendatutako pertsona eskudunak egingo ditu, bere kontura, beharrezkoa den udal baimen edo lizentzia eskuratu eta gero. | Los rebajes de acera, si fueran precisos, se realizarán por persona competente designada por el titular (interesado), y a su costa, una vez obtenida la preceptiva autorización o licencia municipal. |
| | |
| Obrak erabat amaitu ondoren, udal zerbitzu teknikoei horren berri emango zaie, egindako lanak ikuska ditzaten eta txostena egin dezaten, eta horien aldeko txostena egin ondoren, eta indarrean dagoen Zerga Ordenantzak adierazten duen tasa ordaindu ondoren, pasabide-lizentzia emango zaie. | Una vez finalizadas completamente las obras, se dará cuenta a los servicios técnicos municipales para que inspeccionen los trabajos efectuados y emitan informe, y tras el informe favorable de los mismos y previo pago de la tasa que señale la Ordenanza Fiscal vigente, les será concedida la licencia de vado. |
| | |
| Lizentzia horren plaka bereizgarriak kostu hori ordaindu ondoren emango dira. | Las placas distintivas de dicha licencia le serán entregadas previo abono del costo de las mismas. |
| | |
| 15. artikulua.- Espaloia jaisteko obrek baldintza hauek bete beharko dituzte: | Artículo 15.- Las obras de rebaje de acera se sujetarán a las siguientes condiciones: |
| | |
| a.- Zintarria jaistea: dagoen zintarria ibiaren zabalera osoan jaitsiko da, galtzadaren sestratik 3 eta 5 cm arteko kotan geratu arte. | a.- Rebaje de bordillo: el bordillo existente se rebajará en toda la anchura del vado, hasta quedar a una cota entre 3 y 5 cms. sobre la rasante de la calzada. |
| b.- Espaloia sendotzea: 25 cm harrobi zapalduko materialez eta 175 k/cm2-ko | b.- Refuerzo de acera: se dispondrá un afirmado compuesto por 25 cms. de |

| | |
|---|---|
| erresistentzia bereizgarriko hormigoizko 15 cm zolataz osatutako zoru bat jarriko da, sare elektrosoldatuarekin. | material de cantera apisonado, y 15 cms solera de hormigón de 175 k/cm2 de resistencia característica con mallazo incorporado. |
| c.- Espaloiaren jarraipena: espaloian dagoen zoladura berrituko da (baldosa, asfalto urtua, etab.), espaloiko gainerako zoladurarekin desjarraitutasunik ez izateko. | c.- Continuación de acera: se repondrá el pavimento existente en la acera (baldosa, asfalto fundido, etc.) de forma que no exista discontinuidad con el pavimento del resto de la acera. |
| d.- Galtzadaren seinaleztapena: ibiaren irteerako zoladuran, gurutze itxurako seinale horizontal bat jarri beharko da, hori kolorekoa eta galtzada dagoela adierazten duena, eta zintarria 50 cm-ko zabalerako zerrenda horiz margotu beharko da. | d.- Señalización de calzada: deberá colocarse en el pavimento de salida del vado, una señalización horizontal en forma de aspa, de color amarillo indicadora de su existencia, así como el pintado del bordillo con franjas amarillas de una anchura de 50 cm. |
| | |
| 16. artikulua.- Espaloiak beheratzea baimenik gabe-. | Artículo 16.- Rebaje de aceras sin autorización. |
| | |
| Espaloiak dagokion baimena lortu gabe beheratzen direnean, udal-administrazioak 15 eguneko epea emango dio titularra den pertsonari espaloia lehengo egoerara itzul dezan, bere kontura. | Cuando se realice un rebaje de aceras sin haber obtenido la correspondiente autorización, la persona a quien corresponda ser titular será requerida por la Administración Municipal para que en el plazo de 15 días reponga, a su costa, la acera a su estado anterior. |
| | |
| Hala ere, aurreko paragrafoan xedatutakoaz aparte, Ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen badira, arau-hausleak pasabide-lizentzia eskatu ahal izango du epe berean. | No obstante lo dispuesto en el párrafo anterior, si se reúnen las condiciones establecidas en esta Ordenanza el infractor podrá solicitar en el mismo plazo la licencia de vado. |
| | |
| Ezarritako hamabost eguneko epea igaro eta lizentzia eskatu ez bada eta espaloia aurreko egoerara aldatu ez bada, udal agintaritzak 3 euroko isuna jarriko dio arau-hausleari, arau-hausteak irauten duen egun bakoitzeko. | Transcurrido el plazo de quince días fijados sin haber solicitado la licencia ni repuesto la acera a su anterior estado, la Autoridad Municipal impondrá al infractor una multa de 3 euros/día por cuantos días subsista la infracción. |
| | |
| 17. artikulua.- Arau-hausteak. | Artículo 17.- Infracciones. |
| Ordenantza honen ondorioetarako, arau-hausteak eta zehapenak arin eta larrietan bereiziko dira. | A los efectos de esta Ordenanza, se diferenciará entre infracciones y sanciones leves y graves. |

| | |
|---|---|
| | |
| Arau-hauste arintzat hartuko da espaloia baimenik gabe jaistea, beti ere geroago legeztatzen bada, aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera. | Tendrá la consideración de infracción leve la realización de rebaje de acera sin autorización pero legalizadas posteriormente conforme a lo establecido en el artículo anterior. |
| | |
| Isuna, urtero ordaindu beharreko tasaren baliokidea izango da. | Se sancionará con una multa equivalente a la tasa anual a abonar. |
| | |
| Ordenantza honetan ezarritako beste edozein betebehar ez betetzea hutsegite larritzat hartuko da eta lizentzia iraungiz zigortuko da, 16. artikuluaren azken paragrafoan jasotako kasuan izan ezik, kasu horretan bertan ezarritakoaren araberako zehapena ezarriko baita. | El incumplimiento de cualesquiera otras obligaciones impuestas en esta Ordenanza será considerado falta grave y será sancionada con la caducidad de la licencia, salvo en el caso contemplado en el párrafo final del artículo 16, que será sancionado conforme a lo establecido en la misma. |
| | |
| 18. artikulua.- Arau hausteen eta zehapenen preskripzioa. | Artículo 18.- Prescripción de infracciones y sanciones. |
| | |
| Arau-hauste eta zehapenen preskripzio-epea bi urtekoa izango da arau-hauste larrien kasuan, eta sei hilabetekoa arinen kasuan. | Los plazos de prescripción de las infracciones y sanciones serán de dos años para las graves y de seis meses para las leves. |
| | |
| 19. artikulua.- Zehapenak ezartzeko eskuduntza. | Artículo 19.- Competencia para la imposición de sanciones. |
| | |
| Ordenantza honetan aurreikusitako zehapenak ezartzea alkatearen eskumena izango da, eta dagokion zehapen-espedientea izapidetu ondoren ezarriko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean eta zehatzeko ahala erabiltzeko prozedura arautzen duen erregelamenduan ezarritakoaren arabera. | La imposición de las sanciones previstas en esta Ordenanza será competencia del Alcalde y se efectuará previa tramitación del correspondiente expediente sancionador conforme a lo establecido en la Ley de Bases de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y el Reglamento regulador del procedimiento para el ejercicio de la potestad sancionadora. |
| | |
| Azken Xedapena. | Disposición Final. |
| | |
| Ordenantza hau indarrean sartuko da testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean | La presente Ordenanza entrará en vigor una vez publicado su texto íntegro en el |

| | |
|---|---|
| argitaratu eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikuluko izapideak bete ondoren. | Boletín Oficial de Gipuzkoa y cumplimentados los trámites del artículo 70.2 de la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local. |